



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# EMOZIOAK HAUR HEZKUNTZAN

## GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Arias Alamo, Naia.

ZUZENDARIA: Campo Carrasco, Lucía.

**2023**

## **LABURPENA**

Jaiotzen garenetik, emozioak funtsezkoak dira gure eguneroko bizitzan, hortaz, garrantzi handia dute hezkuntzan. Gradu Amaierako Lan honetan (GRAL), Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean dauden Haur Hezkuntzako irakasleek duten adimen emozionala aztertu nahi da, baita haien kudeaketa emozionalerako estrategiak eta mugak ere. Horretarako, 72 irakaslek osatutako talde batek galdera-sorta bat bete du, haien arreta, argitasuna eta konponketa emozionala ebaluatzeko. Era berean, galdera-sorta honen bidez, irakasleek zehaztu dute zein diren ikasgela bat emozionalki kudeatzeko dituzten arazo nagusiak eta nola lan egiten duten banaka beren emozioetan. Emaitzetan ikusten denaren arabera, gehienek arreta, argitasun eta konponketa egokiak lortzen dituzte, baina baten batek alderdi hauek hobetu beharko ditu. Gainera, gehienak bat datoz ikasgelan emozioak eraginkortasunez kudeatzeko dituzten mugekin.

Hitz gakoak: *adimen emozionala, kudeaketa emozionala, erregulazioa, ulermena, arreta*

## **RESUMEN**

Desde que nacemos, las emociones son algo fundamental en nuestro día a día y, por lo tanto, tienen gran importancia en la educación. En este Trabajo de Fin de Grado se pretende analizar la inteligencia emocional que tiene el profesorado de Educación Infantil perteneciente al País Vasco y cuáles son sus principales limitaciones y estrategias de gestión emocional. Para ello, un grupo de 72 docentes ha completado un cuestionario en donde se evalúa su atención, claridad y reparación emocional. Al mismo tiempo, por medio de este cuestionario los docentes han definido cuáles son los principales problemas que tienen a la hora de gestionar emocionalmente un aula y cómo trabajan individualmente en sus emociones. Conforme a lo que se ve en los resultados, la mayoría obtiene una atención, claridad y reparación adecuadas, aunque alguno ha obtenido resultados mejorables. Además, se ha podido observar las diferentes limitaciones que encuentran para gestionar eficientemente las emociones en el aula.

Palabras clave: *inteligencia emocional, gestión emocional, regulación, comprensión, atención*

## **ABSTRACT**

Since we are born, emotions are something fundamental in our daily lives and therefore, they are of great importance in education. The aim of this Final Degree Project is to analyse the emotional intelligence of Early Childhood Education teachers

in the Basque Country and their main limitations and emotional management strategies. To this end, a group of 72 teachers completed a questionnaire in which their attention, clarity and emotional reparation were evaluated. At the same time, by means of this questionnaire the teachers have defined which are the main problems they have when it comes to emotionally managing a classroom and how they work individually on their emotions. As can be seen from the results, most of them obtained adequate attention, clarity and reparation, although some of them obtained poor results. In addition, most of them agree on the limitations they encounter in managing emotions effectively in the classroom.

*Keywords: emotional intelligence, emotional management, emotional regulation, understanding, attention*

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. JUSTIFIKAZIOA.....	6
3. MARKO TEORIKOA.....	7
3.1. Zer dira emozioak?.....	7
3.2. Zer da adimen emozionala? .....	8
3.3. Zer da gaitasun emozionala? .....	11
3.4. Adimen emozionala hezkuntzan .....	13
4. HELBURUAK.....	14
5. METODOLOGIA.....	15
5.1. Partaideak.....	15
5.2. Erabilitako tresnak .....	16
6. EMAITZAK.....	18
7. ONDORIOAK .....	28
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	30
9. ERREFERENTZIAK.....	32
10. ERANSKINAK.....	37
10.1. 1. Erankina: Partaideen datuak.....	37
10.2. 2. Eranskina: TMMS-24 .....	42
10.3. 3. Eranskina: Kudeaketa emozionalarekiko galderak.....	43
10.4. 4. Eranskina: TMMS-24ren arretaren emaitzak .....	44
10.5. 5. Eranskina: TMMS-24ren argitasunaren emaitzak .....	47
10.6. 6. Eranskina: TMMS-24ren konponketaren emaitzak.....	50
10.7. 7. Eranskina: Kudeaketa emozionalaren emaitzak .....	53
10.8. 8. Eranskina; Kudeaketa emozionala gelan .....	55
10.9. 9. Eranskina: Irakasleen kudeaketa emozional pertsonala .....	70

## 1. SARRERA

Gure gizartea etengabe aldatzen ari denez, hezkuntza-sistemak aldaketa horietara egokitzeko gai izan behar du; izan ere, hezkuntza-sistemak gai izan behar du egungo eta etorkizuneko gizartearen beharrak asetzeko, kalitatezko hezkuntza ziurtatuz. Horretarako, ezinbestekoa da eskoletan arlo kognitiboa ez ezik, emozionala eta soziala ere lantzea.

Bestalde, adimenaz ari bagara, azken urteetara arte, definizio ezagunenak alderdi kognitiboetan soilik oinarritzen ziren, hala nola oroimenean eta arazo kognitiboak konpontzeko gaitasunean. 1983an Howard Gardnerrek, adimen anitzen teoriarekin, koefiziente intelektuala bezalako markatzaileek gaitasun kognitiboaren zati bat bakarrik azaltzen dutela azaldu zuen arte, ez baitute kontuan hartzen pertsonen arteko adimena eta pertsona barneko adimena.

Hori esker, gaur egun pertsonen adimen emozionalari ere garrantzia ematen zaio, pertsona baten zoriona eta arrakasta emozioekin erabat lotuta dagoelako. Hori dela eta, beharrezkoa da hezkuntzan emozioak lantzea, irakasleen prestakuntza egokia bermatuz; ikasleei ematen zaien informazioa egokia eta aberasgarria izan dadin eta hurrek beren emozioak ondo ezagutzen eta kudeatzen ikas dezaten.

Hezkuntza-sisteman irakasleek funtzio nagusi bat betetzen dute, eta Castañeda et al-ek (2020) aipatzen duten bezala, "irakaslearen praktika profesionala jokabide-eredu emozionalek markatzen dute, eta praktika kognitiboa zein emozionala da, irakaslea beti emozioen eraginpean dagoelako" (155. or.). Horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honen bidez, Haur Hezkuntzako irakasleen adimen emozionala eta kudeaketa emozionala aztertuko dira.

Aipatutakoa kontuan hartuta, ikerketa aurrera eramateko lehenik eta behin, gaia zergatik aukeratu dudan azalduko dut justifikazio baten bitartez. Ondoren, gaiaren inguruko marko teoriko bat garatuko dut arlo teorikoa lantzeko eta gero, ikerketa bat aurrera eramango dut. Jarraian, lortutako emaitzak aztertuko ditut eta hainbat ondorio aterako ditut. Azkenik, lana burutu bitartean izandako mugak eta arazoak aztertuko ditut hobetzeko hainbat proposamen garatuz.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Extremera-ren eta Fernandez-en (2004a) arabera, ezinbestekoa da irakasleak jakitea emozioak faktore erabakigarria direla ikasleen garapen afektiboan. Hori are garrantzitsuagoa da Haur Hezkuntzan; hezitzaileak baitira, familiakoekin eta beste heldu batzuekin batera, umeen garapen fisikoan, kognitiboan eta emozionalean eragin handia izango dutenak.

Bestalde, Extremera-ren eta Fernández-en arabera (2015), lotura dago adimen emozionalaren eta osasun mental eta fisikoaren artean; beraz, osasun-arazoak arintzeko eta, horrela, bizi-kalitate hobea lortzeko, beharrezkoa da emozioak erregulatzeko trebetasunak izatea estres-egoerei aurre egiteko gai izateko. Gainera, gaur egun ikasgeletan dauden dinamikak ikusita, argi dago irakasleen prestakuntzak gaur egungo arazoei aurre egitea ahalbidetuko dioten arloak hartu behar dituela, esate baterako, diziplinarik eza, eskola-jazarpena, geletako apatia eta motibaziorik eza. Hau dena, ikuspegi pertsonalago batetik, non ikaslearen gogoeta afektiboa ezinbestekoa bihurtzen baita irakaskuntzan eraginkortasunez jarduteko.

Irakasleek, batez ere haur hezkuntzan lan egiten dutenek, trebetasun emozional gehiago eskuratu behar dituzte. Alde batetik, beren arazo emozionaletan lan egin ahal izateko eta horrela *burnout*<sup>1</sup> bezala ezagutzen dena, egunetik egunera ohikoagoa dena, saihestu ahal izateko.

Eta bestetik, ikasleei beren emozioak ezagutzen, ulertzen eta kudeatzen laguntzeko; izan ere, emozioekin moldatzen dakien erreferente bat izanez gero, hainbat arazo ekidin ahal dira; besteak beste, galdua eta blokeatuta sentitzea, estres handiko egoeretan zer egin jakin gabe, familia-arazoak, eskola-jazarpena, autoestimua baxua eta abarreatatik.

Hori dela eta, oso garrantzitsua iruditzen zait irakasleek adimen emozional ona izatea beren ikasleei irakatsi eta lagundu ahal izateko. Azkenean, adimen emozionala

---

<sup>1</sup> Laguntzan aritzen diren pertsonen sindrome bereizgarria da. Pertsona horien lana, pertsonekin etengabe harremanetan egotea da, batez ere zerbitzu hori eskaintzen zaien pertsonekin. Maslack-ek eta Jackson-ek (1981) azaltzen dutenez, hiru sintoma ditu: nekea edo akidura emozionala, despersonalizazioa, eta gaitasunik ezaren eta lan-porrotaren sentimenduak, errealizazio pertsonalaren gabeziarekin batera.

trebetasun garrantzitsutzat jotzen da ongizate psikologikorako eta bizitzako hainbat arlotan arrakasta izateko, hala nola pertsonen arteko harremanetan, lanean eta lidergoan.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. Zer dira emozioak?**

Jaiotzen garen unetik, emozioak garenaren ezinbesteko parte dira. Ama baten begiradak, adibidez, emozio ugari eragin ditzake bere seme-alabengan, zorientasuna, beldurra edota egonezina, bera begiratzen ari den moduaren arabera. Chóliz-ek (2005) aipatzen duen bezala, gure emozio guztiek, era batera edo bestera, jaiotzen garen unetik bizitzaren amaieraraino bizi dugun moduari eragiten diote. Emozio batzuek, beldurra esaterako, arriskutik babestu dituzte gizakiak hasieratik. Eta beste batzuk, errukia adibidez, besteen presentziak baldintzatzen ditu eta giza kalitatea ematen edo kentzen digute.

Emozioaren definizioari dagokionez, nahiko zaila da, baina Bisquerraren ustez (2003), “emozio bat organismoaren egoera konplexu bat da, eta asaldura edo nahasmen bat du ezaugarri, erantzun antolatu baterako joera ematen duena. Emozioak kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortzen dira” (12. or.).

Emozioek hiru osagai dituzte: osagai neurofisiologikoa, erantzun fisikoekin agertzen dena (izerdia, takikardiak, arnasketa, etab.); jokabide-osagaia, nola jokutzen dugun, zer aurpegi-adierazpen egiten ditugun, zer tonu eta ahots-bolumen erabiltzen dugun, etab. zehazten duena; eta azkenik, osagai kognitiboa, bizipena, sentimendua deitzen duguna. Ezaugarri horiei esker, egoera emozional bat kalifikatzen eta izendatzen dugu. Askotan, etiketa hori hiztegi emozional faltak eta introspektzio faltak mugatzen dute, eta horrek zer gertatzen ari den ez jakitearen sentsazioa sortzen du, eta, beraz, ondoeza sentitzen dugu (Bisquerra 2003).

Azkenik, Conejerok, Pascualek eta Etxeberriak (2007) azaldu duten bezala, emozioei buruz oraindik erabateko adostasunik ez dagoen arren, aditu asko bat datoz emozioei buruzko bost baieztapenetan: emozioak norbanakoaren erantzun-sistemei lotuta daudela, mota asko daudela, azpiegitura neuronala dutela, korrelazio zuzena dutela prozesu kognitiboekin eta pertsona batetik bestera eta kultura batetik bestera ezberdintzen diren osagai kognitiboak dituzten hainbat eskema emozional daudela.

### **3.2. Zer da adimen emozionala?**

Saloveyk eta Mayerrek (1997), bi psikologo eta akademiko nabarmenek, norberaren eta besteen emozioak modu eraginkorrean ezagutzeko, ulertzeko eta maneiatzeko gaitasun gisa bezala definitzen dute adimen emozionala.

Adimen emozionala ere Gardnerrek adimen sozialari buruz duen ikuspegiaren parte da; zehazki, adimen pertsonalak deitzen dituenak. Adimen sozialak bezala, adimen pertsonalek (pertsonek arteko adimena eta pertsona barneko adimena) norberaren eta besteen ezagutza hartzen dute. Adimen pertsonalaren alderdi bat sentimenduekin lotuta dago, eta adimen emozionala deitzen dugunaren nahiko antzekoa da (Gardner, 1983).

Pertsonek arteko adimenak, besteak beste, besteen gogo-aldarteak eta izaera behatzeko gaitasuna eskatzen du, baita ezagutza hori etorkizuneko portaerak iragartzeko erabiltzeko ere. Adimen sozialak bezala, adimen emozionala ere Gardnerren adimen pertsonalaren azpimultzo bat da. Adimen emozionalak ez ditu barne hartzen niaren zentzu orokorra eta besteen balorazioa. Batez ere, arazoak konpontzeko eta portaera erregulatzeko norberaren eta besteen egoera emozionalak ezagutzea eta erabiltzea bezalako prozesuetan zentratzen da.

Adimen emozionalean gehien onartzen den kontzeptu-kategorizazioak, eredu mistoak eta trebetasunetan oinarritutako informazioa prozesatzeko ereduak dira. (Mayer, Salovey eta Caruso, 2000).

Izenak iradokitzen duen bezala, eredu misto batek hainbat trebetasun, helburu, nortasun-ezaugarri, gaitasun eta jarrera emozional biltzen ditu. Eredu horiei egiten zaien kritikarik handiena da, hainbeste elementu dituztenez, bere tresnen emaitzak nahasgarriak direla, bai eta bere aldagai ugariak eta konplexuak arteko mugak ere (Fragoso-Luzuriaga, 2015). Aipatu behar da, hau izan zela Golemanen best-seller-aren edizioaren arrakastaren ondoren gehien zabaldutako eredu teorikoa hezkuntzaren arloan.

Trebetasunetan oinarritutako informazioa prozesatzeko ereduak Salovey eta Mayer (1997) egileek, adimen emozionala emozioen erabilera moldagarrian eta gure pentsamenduan duen aplikazioan oinarritutako adimen gisa ulertzen dute. Haien ereduak, emozioek arazoak konpontzen laguntzen dute, ingurunera egokitzea erraztuz, eta lau osagai nagusi ditu:



- Pertzepzio emozionala: norberaren eta besteen emozioak hautemateko eta antzemateko gaitasuna.
- Emozioak erraztea: emozioak erabiltzeko gaitasuna, pentsamendua eta arrazoiketa errazteko.
- Emozioen ulermena: emozioen konplexutasunak eta emozioen arteko harremanak ulertzeko gaitasuna.
- Emozioen erregulazioa: emozioak modu egokian eta eraikitzailean maneiatzeko eta erregulatzeko gaitasuna.

Eredu honen arabera, Adimen Emozionalak hiru dimentsio ditu: Arreta Emozionala, Argitasun Emozionala eta Erreparazio Emozionala.

Extremerak eta Fernándezek (2005) azaltzen duten bezala, Arreta Emozionalak, geure sentimenduak identifikatzeko eta ezagutzeko dugun trebetasuna adierazten du, baita sentimendu horiek dakartzaten egoera eta sentsazio fisiologiko eta kognitiboak ere. Argitasun Emozionala, gure emozioak hautematen uste dugun moduari buruzkoa da, hau da, gure sentimenduak argi esperimendatzen baditugu eta nola sentitzen garen ulertzen badugu. Dimentsio honek seinale emozionalen erreperitorio zabal eta konplexua xehatzea, emozioak bereiztea eta etiketatzea, eta sentimenduak zein kategoriatan biltzen diren jakitea eskatzen du. Azkenik, Erreparazio Emozionalak adierazten du ea gaitasunik badugun egoera emozional negatiboak eteteko eta erregulatzeko, eta egoera emozional positiboak luzatzeko. Dimentsio honek barne hartzen du sentimenduekiko harkorra izateko eta sentimenduei buruz hausnartzeko gaitasuna, laguntzen duen informazioa erabilgarritasunaren arabera baliatzeko edo baztertzeke.

Eredu honen gauzarik interesgarriena da adimen emozionala ikasi eta garatu daitezkeen trebetasunak eta portaerak praktikan jartze gisa definitzen dutela, eta ez ezaugarri heredatu eta aldaezin gisa (González, Custodio eta Abal, 2019).

Saarni (2000), Davies, Stankov eta Roberts (1998), Epstein (1998), Bar-On (1997) eta Shutte et al. (1998) dira adimen emozionalaren kontzeptuaren definizioari buruz idatzi duten beste egile batzuk. Batzuek esparru zabal bat babesten dute, adimen akademikoak bere baitan hartzen ez duen guztia hartzen duena, hala nola bulkaden kontrola, automotibazioa, interakzio sozialak, etab. (Goleman, 1996; Bar-On, 1997, 2000). Beste batzuek, Mayer, Salovey eta Carusok (2000) kasu, kontzeptu konstriktibo

baten alde egiten dute, kontzeptu zientifikoek espezifikoak eta murriztaileak izan behar direla baieztatuz.

Mayer, Caruso eta Saloveyren (2001) helburua adimen emozionalaren eraikuntzaren propietate psikometrikoak definitzea da, MEIS<sup>2</sup>ek (Multifactor Emotional Intelligence Scale) esparru teoriko batean oinarritutako proba psikometrikotzat hartzeko baldintzak betetzen dituela frogatuz. Adimen emozionala harreman sozialak hautemateko, ulertzeko eta kudeatzeko gaitasuna dela ondorioztatuz.

Adimen emozionala kontzeptu gisa eztabaidagai dago oraindik. Teorizazioak asko aurreratu arren, hortik ateratzen diren aplikazioek erakuts daitezkeen gaitasun emozionalak daudela adierazten dute.

Mayerrek eta Saloveyk (1997) diotenez, adimen emozionala izateak zenbait gertakari egokitutako erreakzioak eskatzen baditu ere, batzuetan ez dago erantzun zuzenik. Beraz, adimen emozionala informazioa prozesatzeko tresna bat denez, portaera emozionala "ona" edo "txarra" gisa etiketatzea saihesten du; ez du agintzen pertsona batek nola pentsatu edo sentitu behar duen, baizik eta ikerketa pertsonalaren prozesura bideratzen du, gizabanakoaren ezaugarriak errespetatuz.

Nabarmentzekoa da egileek adierazten dutela adimen emozionala informazioa prozesatzeko trebetasunez osatuta dagoela, ez gaitasunez. Gainera, Goleman (1996) edo Bar-On (2010) egileen proposamenetik bereizteko, adimenaren eta gaitasun emozionalaren arteko bereizketa bat ezartzen dute, eta baieztatzen dute adimen emozionala dela emozioekin arrazoitzeko trebetasunen muina, eta konpetentzia emozionala, berriz, norbanakoak lorpen emozionalaren maila jakin bat lortzen duenean lortzen dela.

Ondorioz, esan daiteke adimen emozionalak prozesu afektiboak eta kognitiboak bateratzen dituela, garatu aurretik bi ideia horiek kontrajarriak edo desberdinak zirela uste bazen ere (Mayer et al., 2000). Egoera afektiboek sortutako informazioa trebetasun kognitiboez gain arazoak konpontzeko erabil daitekeenez, aukera berri bat bermatzen du egunero sortzen diren arazoak konpontzeko. Funtsezkoa da kontuan

---

<sup>2</sup> Adimen Emozionalaren Faktore Anitzeko Eskala

hartzea pertsonen nola interpretatzen eta ebaluatzen duten egoera bakoitza, emozioak eta haien adierazpenak eguneroko bizitzaren zati normalak direlako (Lazarus, 2007).

Izan ere, edozein egoeratan, emozioek pertsona bakoitzaren jarreretan modu jakin batean eragiteko ahalmena dute (Reeve, 2005). Azkenik, adimen emozionalaren atala ixteko, generoak eta hari lotutako estereotipoek adimen emozionalari nola eragiten dioten aztertu behar dugu.

Adimen emozionalaren arloan, garrantzitsua da adieraztea faktore sozialek zeregin garrantzitsua dutela sexu-desberdintasunaren jatorrian (Gartzia et al., 2012). Gizonak instrumentalagoak dira, eta emakumeak adierazgarriagoak, genero-identitatea ezaugarri estereotipatuaren identifikaziotzat hartzen denean. Horrek eragin zuzena du gizonen eta emakumeen sozializatzeko duten moduan, beren jarrerei, pentsamenduei eta sentimenduei forma ematen dielako (Bem, 1974).

Illo beretik, adierazi behar da adierazgarritasunak estereotipo maskulinoen eta femeninoen aniztasuna biltzen duela, besteak beste, sozializazioa, besteen beharrak asetzea, sentsibilitatea edo enpatia, eta alderdi instrumentalak; aldiz, estereotipo maskulinoak hartzen ditu, hala nola independentzia, asertibitatea, norberarekiko konfiantza edo anbizioa. Genero-desberdintasunak daude egoera emozionalari aurre egiteko orduan, batez ere emozio negatiboak kudeatzeko erabiltzen diren estrategiei dagokienez (López, 2016).

Faktore biologiko eta pertsonalez gain, faktore sozial eta kulturalak ere hartu behar dira kontuan hori zergatik gertatzen den ulertzeko. Emakumeek gizonen baino joera handiagoa dute depresioa edo antsietatea izateko, baina joera hori ez da emakumeak jaiotzetik duen ezaugarri biologiko baten emaitza; are gehiago, nerabezaroan garatu ohi da, gizarteak neska eta emakume gazteengan eragiten duen presioaren ondorioz (López, 2016). Azkenik, aipatzekoa da pertsona androginoek adimen emozionalaren maila handiagoa dutela identitate estereotipatuagoak dituzten pertsonen baino.

### **3.3. Zer da gaitasun emozionala?**

Badirudi gaitasun emozionalak kontzeptu autonomo gisa sortzea adimen emozionalaren eredu mistoekin lotuta dagoela; hala ere, terminoaren jatorria bere euskarri teorikoarekin identifikatzeko gako Mayer eta Saloveyren (1997) idazkietan dago. Izan ere, Saarni (1999, 1997) gaitasun emozionala oinarri sendoarekin, definizio eztaba daezinarekin, sortu zuen lehena izateagatik aintzatesten dela diote.

Saarniren (1999, 1997) arabera, gaitasun emozionalak pertsona batek ingurune aldakor batean moldatzeko eta pertsona bakarra, hobeto egokitu, eraginkor eta bere buruarengan konfiantza handiagoa izateko behar dituen gaitasun eta trebetasun multzoa dira. Eredu honek funtsezko zortzi gaitasun hauek biltzen ditu:

- Norberaren emozioak ulertzea: hainbat esperientzia emozional, garapen emozionaleko hainbat etapa eta itxuraz inkontzienteak diren prozesu emozionalen kontzientzia ezagutzea.
- Beste pertsona batzuen emozioak ulertzea eta identifikatzeko gai izatea.
- Hizkuntza eta adierazpen emozionaleko trebetasunak: emozioaren berezko hizkuntza eta adierazpenak erabiltzea, betiere norberaren kulturekin eta azpikulturekin lotuta.
- Enpatizatze gaitasuna: besteen esperientzia emozionalak identifikatzeko eta ulertzeko gaitasuna.
- Barneko eta kanpoko adierazpen emozionala bereizteko gaitasuna.
- Egoera desafiatzaile eta estresagarriei modu egokitzailan aurre egiteko gaitasuna, gertaera gatazkatsuen unean duten eragina murriztuz.
- Harremanetan komunikazio emozional zintzoa izateko gaitasuna
- Autoeraginkortasun emozionalerako gaitasuna: emozioak esperimentatzeko aukera ematen dio pertsona bati, bere behar pertsonalak, sozialak eta kulturalak orekatzeko.

Bestalde, Rafael Bisquerrak (2003) azaltzen duen bezala, gaitasun emozionalak hainbat trebetasun eta gaitasun barne hartzen ditu, pertsona batek bere emozioak eraginkortasunez moldatzeko, besteen emozioak ulertzeko eta horiei erantzuteko, eta harreman osasungarriak eta gogobetegarriak ezartzeko aukera izan dezan. Definizio horretatik abiatuta, Bisquerrak eta Perezek (2007) gaitasun emozionalen eredu bat formulatu zuten, honako bost elementuekin:

- Kontzientzia emozionala: norberaren emozioak ezagutzeko eta ulertzeko gaitasuna, bai eta norberaren portaeran eta ongizatean duten eragina ere.
- Emozioen erregulazioa: norberaren emozioak modu osasungarrian eta eraikitzailean maneiatzeko eta erregulatzeko trebetasuna, erantzun oldarkorrak edo kontrolik gabekoak saihestuz.
- Autonomia emozionala: Autokudeaketa emozionalarekin lotutako hainbat ezaugarri biltzen ditu, besteak beste, autoestimua, automotibazioa,

autoeraginkortasuna, erantzukizuna, jarrera positiboa, arau sozialen azterketa kritikoa eta erresilientzia.

- Besteen emozioak ezagutzea: Honetarako, funtsezkoa da empatia izatea, norberaren emozioen ezagutzan oinarritzen dena. Enpatiaren bidez, pertsonak besteek behar edo nahi dutena adierazten duten seinaleak uler ditzakete.
- Gaitasun soziala: Beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasunaz ari da, emozioak behar bezala adierazteko gaitasunaz, bai ahoz, bai gorputz-hizkuntzaren bidez, eta besteen emozioak entzuteko eta ulertzeko gaitasunaz.

Eredu hauek ikusita, esan dezakegu zenbait korrelazio daudela pertsona baten emozioak erregulatzeko gaitasunaren eta adimen emozionalako eredu mistoen eta trebetasun-ereduen artean. Terminoen artean erlazio bat dagoela ukatzerik ez badago ere, azpimarratu behar da gaitasun emozionalako proposamen horiek Golemanen (1996) eta Mayer eta Saloveyren (1997) oinarrietatik bereizten diren oinarri teorikoak dituztela, eta horrek are nabarmenagoa egiten du gaitasun emozionalaren eta adimen emozionalaren arteko bereizketa.

#### **3.4. Adimen emozionala hezkuntzan**

Andy Hargreavesek dionez (1998) emozioak irakaskuntzaren bihotza dira. Irakaskuntzan egiten den lana, batez ere, ikasleen eta beste ikaskideen arteko harremanetan oinarritzen da, beraz, esperientzia emozionalak iraunkorrak dira. Haserrea, poza, antsietatea, afektua, tristezia eta frustrazioa, dira irakasleek egunero bizi dituzten sentimenduetako batzuk, intentsitate eta zabaltasun handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Harreman- eta afektibitate-alderdiek interes berezia dute Haur Hezkuntzan. Adin horietan haurrek behar dutena giro bero, lasai eta atsegina baino gehiago da; irakaslearekin kalitatezko harreman pertsonala izan behar dute. Harreman horretan, umeak maitatuak eta baloratuak sentitzeko, segurtasuna transmititu behar zaie, eta, horrez gain, haien garbiketa-, zaintza- eta elikadura-beharrak ase behar dira.

Oro har, Frontelak (2013) adierazten duen bezala “esan daiteke Haur Hezkuntzako irakasleak didaktika- eta animazio-rola betetzen duela, haurra zaintzen baitu bai programatutako irakaskuntza-jardueretan, bai eguneroko errutinetan eta entretenimendukoetan. Espazioa, materialak, jarduerak eta denbora antolatzen dituen antolatzailea izango da, taldearen baliabideei eta helburuei egokituz” (10. or.). Haur

Hezkuntzako irakasleak giro atsegina, osasungarria eta ongizatekoa sortu beharko du haurrarentzat, ikasteko eta eroso, seguru eta alai sentitzeko beharrezkoak diren estimulua aurrera eramanez.

Irakasleentzat hain garrantzitsua izan behar du etapa edukiak irakastea eta bereganatzea, hala nola, gaitasun afektibo-emozionalak sortzea eta eskuratzea (Extremera, 2018).

Irakasle gehienek ustez, funtsezkoa da ikaslearen garapen integral hori lortzeko trebetasun emozionalak garatzea. Hala ere, Extremerak eta Fernandezek (2004b) aipatzen duten bezala, batzuetan ahaztu egiten da gaitasun emozional, afektibo eta sozial horiek menderatzen dituen irakasle-talde batek irakatsi behar dituela.

Gainera, adimen emozionalari eta horrek testuinguru desberdinetan duen eraginari buruzko ikerketen garapen progresiboak kontzientzia handiagoa sortu du emozioen erabilera egokiaren garrantziari buruz, hezkuntza-testuinguruan sortzen den lan-estresari aurre egiteko (Fernández, Ruiz, Extremera eta Cabello, 2008). Emozioak identifikatu, ulertu eta arautzeko gaitasunak funtsezkoak dira irakasleen artean; izan ere, trebetasun horiek eragina izango dute ikaskuntza-prozesuetan, osasun fisikoan, pertsonen arteko harremanen kalitatean eta errendimendu akademiko eta laboralean.

Nabarmendu behar da irakasleen emozioak aldagai garrantzitsutzat hartzen hasi direla beren bizitza profesionalaren hainbat alderdi ulertzeko, adibidez, norberaren ongizatearekin eta osasun fisiko eta mentalarekin lotutakoak, baita ikasleekiko elkarreraginekin eta gelen funtzionamenduari lotutakoak ere. Adimen emozionalaren eta irakaslearen doikuntza pertsonalaren arteko harremana aztertzeraz bideratutako ikerketek adierazten dute, irakaslearen adimen emozionalak, jasaten duten burnout maila iragartzen duela (Extremera, Fernández eta Durán, 2003).

Hori dela eta, emozioekin modu adimentsuan identifikatzeko, ulertzeko, erregulatzeko eta pentsatzeko gaitasun handiagoa duten irakasleek baliabide gehiago izango dituzte emozionalki prestatuago dauden ikasleak lortzeko eta hezkuntza-testuinguruan maiz sortzen diren gertaera estresagarriei hobeto aurre egiteko.

#### **4. HELBURUAK**

Ikerketa honen helburu nagusiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko haur hezkuntzako hainbat irakasleren pertzepzio eta kudeaketa emozionala aztertu nahi da.

Bestalde, honako hauek dira helburu espezifikoak:

- Haur Hezkuntzako irakasleek Euskal Autonomia Erkidegoan duten adimen emozionala kalifikatzea.
- Irakasleek adimen emozionalari buruz duten pertzepzioa erakustea.
- Adimen emozionalari dagokionez, lanean denbora gehien daramaten hezitzaileen eta lanean denbora gutxien daramatenen artean alderik dagoen aztertzea.
- Irakasleek gelan emozioak kudeatzeko zer estrategia eta muga dituzten zehaztea.

## 5. METODOLOGIA

### 5.1. Partaideak

Ikerketa honetan zehar, EAE-ko Haur Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, pribatuetako zein itunpeko ikastetxeetako irakasle multzo batek hartu du parte. 1. taulan ikusten den bezala, guztira, 72 irakasle parte hartu dute, hoietako 66 emakume eta 6 gizon (partaideen datu guztiak ikusteko ikusi 1. eranskina).

#### 1. taula

##### *Partaideen generoa*

	N	%
Emakumea	66	%91,7
Gizona	6	%8,3

Adinari dagokionez, 2. taulan ikus daitekeenez, adin-tarte guztietako irakasleek hartu dute parte, baina nabarmentzekoa da gehienak 46 eta 55 urte bitartekoak direla.

#### 2. taula

##### *Partaideen adina*

	N	%
20-35 urte	21	%29,2
36-45 urte	14	%19,4
46-55 urte	23	%31,9
+55 urte	14	%19,4

Bestalde, parte-hartzaileen ikasketei erreparatzen badiegu (3. taula), ikus dezakegu gehienek prestakuntza bat baino gehiago lortu dutela, hala nola haur-hezkuntzako goi-mailako gradua, haur-hezkuntzako gradua edota lehen hezkuntzako gradua.

### 3. taula

#### *Partaideen titulazioa edota titulazioak*

	N	%
HH goi-mailako gradua	15	%20,8
HH gradua	20	%27,8
HH goi-mailako gradua eta HH gradua	7	%9,7
HH goi-mailako gradua eta LH gradua	4	%5,6
HH gradua eta LH gradua	14	%19,4
HH goi-mailako gradua, HH gradua eta LH gradua	5	%6,9
HH gradua eta beste titulazioa	4	%5,6
HH goi-mailako gradua, HH gradua eta beste titulazioa	1	%1,4
HH gradua, LH gradua eta beste titulazioa	1	%1,4
HH goi-mailako gradua, HH gradua, LH gradua eta beste titulazioa	1	%1,4

Kontuan hartuta ikerketa hau Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzan jardunean dauden irakasleen pertzepzio eta kudeaketa emozionalean oinarritzen dela, beharrezkoa zen jakitea parte-hartzaileek zenbat denbora daramaten lanean. Eta 4. taulan ikus dezakegunez, inkestaren %37,5ek 20 urte baino gehiago daramatzate sektore honetan lanean.

### 4. taula

#### *Partaideen denbora Haur Hezkuntzan lan egiten*

	N	%
Urte bat baino gutxiago	8	%11,1
1-5 urte	9	%12,5
6-10 urte	7	%9,7
11-15 urte	8	%11,1
16-20 urte	13	%18,1
+20 urte	27	%37,5

#### 5.2. Erabilitako tresnak

Ikerketa honetan, hautemandako adimen emozionalean oinarrituko gara, pertsonak beren trebetasun emozionalei buruz duten metaezagutza gisa ezagutzen dena (Salovey, Stroud, Woolery eta Epel, 2002). Augusto-Landak, López-Zafrak eta Pulido-Martosek (2011) jasotzen duten bezala, hautemandako adimen emozionalak erakutsi du subjektuaren funtzionamendu pertsonal eta sozialaren aurreale ona dela.



Horren adibide dira, besteak beste, hautemandako adimen emozionalaren maila altuen eta bizi-kalitate handiagoaren artean lotura dagoela frogatzen duten ikerketak. Osasun mental handiagoak eta egokitzapen psikologiko hobekiak arazo sozialei irtenbidea ematea aurreikusten dute, eta horiei aurre egiteko estrategia egokiagoak erabiltzearekin lotuta daude; beraz, osasun mentalaren eta sozialaren iragarle gisa agertzen da (Augusto-Landa, López-Zafra, Martínez de Antoñana eta Pulido-Martos, 2006; Augusto-Landa, López-Zafra, Berrios-Martos eta Aguilar-Luzón, 2008; Fernández-Berrocal, Alcaide, Extremera eta Pizarro, 2006; Augusto-Landa, Pulido-Martos eta López-Zafra, 2011; Pena, Extremera eta Rey, 2011; Fernández eta Extremera, 2006; Montes-Berges y Augusto-Landa, 2007; Martins, Ramalho eta Morin, 2010).

Hautemandako adimen emozionalaren kontzeptuak azal lezake pertsonak, emozioak hautemateko, ulertzeko eta erregulatzeko duten trebetasunagatik, estresatzaileen aurrean nola jokatzen duten. Aurreko guztiagatik, horrek garrantzi berezia hartzen du irakasle eta hezitzaileen kolektiboan, ematen duten hezkuntza-maila bereizi gabe, lanean inplikazio emozional handia dakarten lan-baldintzei aurre egin behar dietelako (Martínez, Grau eta Salanova, 2002) eta laneratzean eta enplegarritasunean oso baliagarriak diren gaitasunak baitira (Molero eta Reina-Estévez, 2012).

Salovey, Mayer, Goldman, Turvey eta Palfaik (1995) tresna bat diseinatu zuten hautemandako adimen emozional intrapertsonala ebaluatzeko, Trait Meta-Mood Scale (TMMS) izenez ezagunagoa, hiru dimentsiotan banatutako 48 itenez osatua: emozioen arreta, argitasun emozionala eta konponketa emozionala. Ondoren, Fernández, Extremera eta Ramos (2004) ikertzaile espainiarrek TMMSren bertsio murriztua lortu zuten, ikerketa honetan erabiliko dena (ikusi 2. eranskina), Likert motako 5 puntuko eskalako 24 itenez osatua, eta jatorrizkoak bezala hiru dimentsioak ebaluatzen dituenak: emozioen arreta, emozioen argitasuna eta konponketa emozionala.

Nabarmendu behar da TMMSren itemak ez direla itzuli, Oliveirak (2009) aipatzen duen bezala, galdetegiak berdina izan behar duelako kultura guztietan, eta baliokidetasun semantikoa, linguistikoa, enpirikoa eta kontzeptuala lortzeko beharra dakarrelako, eta hori zaila da ingurune multikultural eta elebidunetan, kasu honetan bezala.

Emozioak kudeatzeko estrategiak eta estrategia horiek ikasgelan eta irakasleentzat duten garrantzia jaso ahal izateko, galdetegian atal bat aurkituko dugu. Atal honetan

hautaketa sinpleko bi galdera aurkituko ditugu, kudeaketa emozionaleko estrategia horiek aplikatu behar dituzten testuinguruari buruz irakasleek duten pertzepzioa ezagutzeko. Likert motako hainbat galdera daude, irakasle gisa egiten duten kudeaketa emozionalari buruz, eta hautaketa anitzeko bi galdera, ikasgelan lan hori egiteko dituzten mugak edo arazoak ezagutzeko, erantzun luzeko lau galderarekin batera, testuinguruan eta haien pertzepzioan sakontzeko (ikus 3. eranskina).

Datu-bilketa guztia Googleren formulario baten bidez egin da, eta posta elektronikoko helbideen eta WhatsApeko mezuen bidez partekatu da.

## 6. EMAITZAK

Emaitzak aztertzen hasteko, beharrezkoa da jakitea zenbat irakaslek jaso duten noizbait hezkuntza emozionalari buruzko prestakuntza. Beraz, 5. taulari begiratu gero, inkestatuen %77,8k, hau da, 56 irakaslek, hezkuntza emozionalari buruzko prestakuntzaren bat jaso dutela ikus dezakegu, %22,2rekin alderatuta.

### 5. taula

*Jaso al duzu hezkuntza emozionalarekin lotutako prestakuntzarik?*

	N	%
Bai	56	77,8%
Ez	16	22,2%

Jarraian, irakasleek egindako TMMS-24 autotxostenetik lortutako datuak behatuko dira.

Nabarmenezkoa da autotxosten honek 24 item dituela Likert motako 5 puntuko eskalan. Puntu bakoitzak item bakoitzaren baieztapenekiko adostasun-maila erakusten du: 1 esan nahi du ez dagoela batere ados, 2 ados dagoela, 3 nahiko ados dagoela, 4 oso ados dagoela eta 5 erabat ados dagoela.

Hasteko, txostenaren lehen dimentsioko datuak aztertuko ditugu: arreta emozionala. Pertsonen beren emozioei eta sentimenduei buruz behatzeko eta pentsatzeko duten joera da, beren egoera afektiboak baloratu eta aztertuz, arreta jarri eta esperientzia emozionala areagotzeko (Salovey et al., 1995; Swinkels eta Giuliano, 1995). Dimentsio honek, TMMS-24ren lehen 8 itemak barne hartzen ditu, eta emaitzak hirutan banatzen dira. Gizonentzat, puntuazioa 21etik beherakoa bada, arreta hobetu beharko du, arreta gutxi jartzen baitu; puntuazioa 22tik 32ra bitartekoa bada, arreta egokia eskaintzen du, eta puntuazioa 33tik gorakoa bada, arreta hobetu beharko du, arreta gehiegi jartzen

baitu. Hala ere, emakumezkoentzat, puntuazioa 24tik beherakoa bada, arreta hobetu beharko du, arreta gutxi eskaintzen duelako; puntuazioa 25etik 35era bitartekoa bada, arreta egokia eskaintzen du; eta puntuazioa 36tik gorakoa bada, arreta hobetu beharko du, arreta gehiegi eskaintzen duelako.

Bigarrenik, emozioen argitasuna aztertuko dugu, pertsonak bizi dituzten emozioak identifikatzeko, bereizteko eta deskribatzeko duten trebetasunari erreferentzia eginez. Dimentsio honek hurrengo 8 itemak hartzen ditu, eta puntuazioa ere hirutan banatzen da. Gizonentzat, puntuazioa 25etik beherakoa bada, ulermen emozionala hobetu beharko du; 26tik 35era bitartekoa bada, ulermen egokia du; eta puntuazioa 36tik gorakoa bada, ulermen bikaina. Emakumeen kasuan, puntuazioa 23tik beherakoa bada, ulermena hobetu beharko du; 24tik 34ra bitartekoa bada, ulermen egokia du; eta 35etik gorakoa bada, ulermen bikaina.

Azkenik, konponketa emozionalaren dimentsioak azken 8 itemak barne hartzen ditu, eta pertsonak emozio negatiboak norabide positiboago baterantz alderantzizatzeko duen gaitasunean sinestea bezala definitzen da. Puntuazioei dagokienez, gizonen puntuazioa 23tik beherakoa bada, emozioen erregulazioa hobetu beharko du; 24tik 35era bitartekoa bada, erregulazio egokia du; eta 36tik gorakoa bada, erregulazio bikaina. Bestalde, emakumeen kasuan, puntuazioa 23tik beherakoa bada, erregulazioa hobetu beharko du, 24tik 34ra bitartekoa bada, erregulazio egokia du, eta 35etik gorakoa bada, erregulazio bikaina du.

Datuak ikusten baditugu, lehenengo dimentsioan, arreta emozionalean, ia guztiek arreta egokia erakusten dute (ikus 4. eranskina). Hala ere, daturik "onenak" eta "okerrenak" ikusten baditugu (6. taula), ikus dezakegu parte hartu duten 6 gizonetatik batek arreta gutxi jartzen duela eta beste batek gehiegi eta adin-tarte berean daudela.

Bestalde, emakumeen emaitzei dagokienez, ikus dezakegu 3 emakumek ez dutela behar adinako arretarik eskaintzen, eta sei emakumek arreta gehiegi jartzen dutela. Azken datu honetatik deigarriena da ez direla adin-tarte jakin batekoak, hortaz, esan dezakegu emozioekiko gehiegizko arreta adinarekiko independentea dela.

## 6. taula<sup>3</sup>

### Arreta emozionalaren muturretako emaitzak

Kasua	Generoa	Adina	Titulazioa	Urteak HHn lan egiten	Hezkuntza emozionala jaso du?		Emaitzak
6	E	36-45	HH goi maila	16-20	Bai	37	Arreta gehiegi
17	E	20-35	HH gradua	6-10	Bai	36	Arreta gehiegi
21	G	46-55	HH gradua	16-20	Bai	34	Arreta gehiegi
22	E	36-45	HH goi maila eta HH gradua	+20	Bai	37	Arreta gehiegi
26	E	+55	HH gradua	+20	Ez	40	Arreta gehiegi
57	E	46-55	HH gradua eta LH gradua	+20	Bai	38	Arreta gehiegi
59	E	46-55	HH gradua	+20	Ez	37	Arreta gehiegi
62	E	20-35	HH goi maila eta HH gradua	1-5	Bai	18	Arreta gutxi
64	G	46-55	HH goi maila eta HH gradua	11-15	Bai	19	Arreta gutxi
65	E	20-35	HH goi maila eta HH gradua	-1	Ez	11	Arreta gutxi
71	E	36-45	HH goi maila eta HH gradua	6-10	Ez	16	Arreta gutxi

Bigarren dimentsioarekin jarraituz gero (7. taula), emozioen argitasuna, emozioen ulermenari dagokiona (ikus 5. eranskina); ulermen falta duten hiru emakume eta gizon bat eta ulermen bikaina duten 12 emakume ikus ditzakegu. Datu horietatik ondoriozta dezakeguna da ulermen emozionalak hobera egiten duela adinarekin, emaitza hobekak lortu dituztenek 46 urte baino gehiago baitituzte.

<sup>3</sup> *Oharra:* Taula honetan arreta emozionalaren emaitza batzuk ditugu. Honetan, emakumeei erreferentzia egiteko E agertuko da eta gizoneei erreferentzia egiteko G. Bestalde, agertzen diren puntuazioak arreta-dimentsioaren erantzunen batura dira, eta, erantzun horren arabera, lortutako emaitza.

## 7. taula<sup>4</sup>

### Argitasun emozionalaren muturretako emaitzak

Kasua	Generoa	Adina	Titulazioa	Urteak HHn lan egiten	Hezkuntza emozionala jaso du?		Emaitzak
7	E	20-35	HH goi maila eta HH gradua	1-5	Ez	19	Ulermena hobetu behar du
9	E	+55	HH gradua eta LH gradua	+20	Bai	21	Ulermena hobetu behar du
11	E	46-55	HH gradua eta LH gradua	+20	Bai	36	Ulermen bikaina
12	E	35-45	HH goi maila eta HH gradua	16-20	Bai	35	Ulermen bikaina
16	E	+55	HH goi maila, HH gradua eta LH gradua	+20	Bai	38	Ulermen bikaina
25	E	+55	HH gradua eta LH gradua	+20	Ez	38	Ulermen bikaina
26	E	+55	HH gradua	+20	Ez	38	Ulermen bikaina
30	E	46-55	HH gradua	16-20	Bai	35	Ulermen bikaina
33	E	46-55	HH gradua eta beste titulazioa	+20	Bai	38	Ulermen bikaina
37	E	+55	HH gradua	+20	Bai	40	Ulermen bikaina
40	G	20-35	HH goi maila eta LH gradua	-1	Bai	23	Ulermena hobetu behar du
43	E	20-35	HH gradua	11-15	Bai	35	Ulermen bikaina
49	E	36-45	HH goi maila, HH gradua eta LH gradua	11-15	Ez	21	Ulermena hobetu behar du
53	E	36-45	HH gradua eta LH gradua	6-10	Bai	39	Ulermen bikaina
63	E	20-35	HH gradua	-1	Ez	38	Ulermen bikaina

Azkenik, TMMSren azken dimentsioari erreparatzen badiogu (8. taula), konponketa emozionalari (ikusi 6. eranskina), ikusten dugu gizon bakar batek eta 6 emakumek hobetu beharko luketela haien erregulazio emozionala. Bestalde, erregulazio bikaina

<sup>4</sup> Oharra: Taula honetan argitasun emozionalaren emaitza batzuk ditugu. Honetan, emakumeei erreferentzia egiteko E agertuko da eta gizoneei erreferentzia egiteko G. Bestalde, agertzen diren puntuazioak argitasun-dimentsioaren erantzunen batura dira, eta, erantzun horren arabera, lortutako emaitza.

duten 10 emakume daude. Oraingo honetan ikus dezakegu erregulazio emozional ona izateko adinak ez duela eraginik, adin-tarte desberdinetako emakumeek puntuazio bikaina baitute.

### 8. taula<sup>5</sup>

#### *Konponketa emozionalaren muturretako emaitzak*

